

EUSKO IKASKUNTZA:

GIZARTELAB: Gizarte-erronka handiei aurrea hartzen, trantsizioan dauden komunitateen sustapenaren bidez



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

Koro Muro Arriet

koro.muro@eusko-ikaskuntza.eus

943310855

<https://www.eusko->

[ikaskuntza.eus/es/proyectos/gizartelab/pr-60/](https://www.eusko-ikaskuntza.eus/es/proyectos/gizartelab/pr-60/)



Jarduera: Eusko Ikaskuntza Euskal Herriaren gizarte erronkei erantzun global eta integratzaileak emateko topagunea da. Horretarako, etorkizunerako agertokiak eta estrategiak diseinatu eta epe luzerako ikuspuntu orokorra ematen du, gizartearen beharren alde.



Sektorea: Erakunde zientifiko-kulturala



Enplegatutako pertsonen kopurua: 14



Lokalizazioa: Miramar jauregia. Mirakontxa 48, 20007, Donostia - San Sebastián, Gipuzkoa

EUSKADI mailako berrikuntza INKREMENTALA**Zergaitik izango litzateke berrikuntza kasu praktiko bat?**

Eusko Ikaskuntzak diseinatutako eta garatutako berrikuntza-programa delako, funtsezko trantsizioen erronkei heltzeko, eta, horretarako, aurrea hartzen lan egiten da. GizarteLaben xedea da, laborategi arineko teknologiaren bidez, komunitate publiko-pribatuak eraikitzea, zeinak trantsizio-gaitasunetan prestatuta egongo diren erronka edo arazo zehatzei konponbide original eta berritzaileen bidez aurre egiteko.

KASU PRAKTIKOARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA

GizarteLab programak, parte-hartze eraginkor eta eraldatzailearen bidez, herritarrak trantsizio handiei (kasu honetan demografikoari) aurre egiteko prestatzea du helburu. Horretarako dira funtsezko hiru helburuak. Haietako lehenengoa herritarrekin batera lan egitea da, trantsizioko gaitasunak garatu eta/edo indartzeko; bigarrena herritarren eta udalen arteko harremana hobetzea da, erronka sozialak lantzeko gizarte-laborategiaren garapenari esker; hirugarrena da trantsizioko komunitateak gidatzea herritarren proiektuak ezartze, n trantsizioko tokiko politikak bultzatzeko.

GizarteLab prestakuntza teorikoko programa batekin hasten da (Trantsizioen Eskola). Bertan, partaideek euskal gizarteak aurre egingo dien trantsizioei (energetikoa, teknologikoa eta demografikoa) buruzko ezagutzak lortzen dituzte. Prestakuntza-fasea bukatu ostean, pertsona interesdunek GizarteLab tailerretara pasatzeko aukera dute. Tailer horiek, batez ere, praktikoak dira eta trantsizioei modu arrakastatsuan aurre egiteko funtsezko gaitasunak lortzea errazten dute. Horretarako, Bizi Mapak, Etorkizun Mapak, etab. erabiltzen dira, trantsizio sozial eta pertsonaleko prozesuei buruzko gogoeta eragiteko, eta, horrela, zalantzazko etorkizunei aurre egiteko beharrezko gaitasunak aztertzeo xedearekin.

Trantsizioko gaitasunen prestakuntza-esperientziak jarraipena du trantsizioko komunitateetan. Komunitateek udalerrian bideragarriak diren konponbideei buruz hausnartzeko eta horiek garatzeko prozesuan jarraitzeko zentzua dute. Fase horretan, partaideek Ekintza Pilotu bat diseinatuko dute ekimena toki mailan sustatzeko. Lan horretarako, komunitateak laguntza jasoko du komunitateko bideratzaileen (Eusko Ikaskuntza) partetik, zeinek laguntza kontzeptuala, metodologikoa eta teknikoa emango duten komunitatearen garapenean lankidetzan aritzeko, lan-plan batean oinarrituta. Ekintza Pilotuek epe laburrerako helburua dute, hau da, ekintza bideragarriak eta ebaluagarriak dira eta ikaskuntza-komunitate batek haiek mantentzeko gaitasuna dauka.

Aurrerago, komunitate horiek jardunbide egokien eta esperientzien truke gisa funtzionatzen dute, eta Eusko Ikaskuntzako profesionalen euskarria ere daukate; hala ere, epe ertainean funtzionamendu autonomoko komunitate bihurtzeko asmoa izan behar dute, prozesu kolektibotik irtenbide kolektiboak bilatzeko.

Proiektu hau belaunaldien arteko Legazpi Planaren esparruaren barruan dago. Plan horretan, Adinberrirekin batera, ISEA S. Coop.-ek, Mondragon Unibertsitateko ikasleek eta Legazpiko Udalak parte hartu dute, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Etorkizuna Eraikiz programaren babespean.

Aurrekariak

Aldaketa globalen abiaduraren eta herritarren zahartze progresiboaren eta geldiezinaren ondorioz, epe labur edo ertainean, gizarteak aldaketei, erronkei eta trantsizioei aurre egin beharko die, eta ez dago halakoetarako prestatuta. Testuinguru horretan, erakunde eta agente ugari dagoeneko ari dira etorkizuneko agertokiei aurre egiten. Eusko Ikaskuntzak, bere aldetik, erabaki du jarduketa horiek beste kontzeptu batetik osatzea, aurrerapenetik, esku-hartze osoari balio bereizgarria emateko.

Erronka

Eusko Ikaskuntzaren erronka nagusia honako hau izan da: zahartzearen erronkari buruzko proiektu berritzaile bat sortzeko gai izatea, dagoeneko kalitate-programak dituzten eragile askok esku hartzen duten testuinguru batean. Bestalde, hurrengo erronka komunitate konprometituak eratzean datza; horretarako, herritarren eta udalen arteko lotura estua eratu behar da, eta autonomoak izan ahal izateko beharrezko ezagutzak eta gaitasunak ematea.

Ekintzak

- 2019ko iraila: Proiektu-pilotua martxan jarri zen Legazpin. Legazpiko Udala tailerren partaideak hautatzeaz arduratu zen zenbait irizpideren arabera (45 eta 55 urte bitartekoa izatea, genero-berdintasuna, beste jatorri batzuetako pertsonak, talde politiko guztietako ordezkariak, udalerrriaren funtsezko eragileak -kultura, kirola, enpresa...-, etab.). Udalek taldea eratu eta egin zuten, Eusko Ikaskuntzak ezarritako irizpideak betez.
- Lehenengo fasea: GizarteLab I- Prestakuntza: 6 gaikuntza-tailer egitea, batez ere praktikoak, non trantsizio-gaitasunen gaikuntza garatzen den, bere alderdi demografikoan. Gainera, partaideek trantsizioko komunitateen eraketari buruzko ezagutzak ere lortzen dituzte (helburuak, udalerrriaren duten rola, etab.).
- Bigarren fasea: Trantsizioko komunitateari (kasu honetan, Legazpikoari) erronka zehatza planteatzen zaio. Trantsizioko komunitatea

gidatua da (Ekintza Pilotuaren Prototipoa) ekintzaren diseinua indartzeko eta inplementazioaren lehenengo fasea martxan jartzeko. Komunitate horretako partaideak GizarteLab I esperientzia aitzindaritik igaro ziren 2019an. Dena den, hobekuntza-elementu gisa, hainbat kolektibotako pertsonak gehitu dituzte, hala nola Buztintegikoak (Legazpiko erretiratuen elkarte), Iratzarrikoak (etxeandreen elkarte), Nagusilanoekoak eta ISEA S. Coop.-eko ordezkariak.

4. Behin Legazpiko bi fase pilotuak amaituta, GizarteLaben beste udalerrri batzuetara eramaten hasten da, hala nola Deba, Beasain eta Bergara.

Lortutako emaitzak

- Berehalako aberastea eta ahalduntzea: partaideak trantsizio-gaitasunetan trebatzea.
- Herritarren eta Udaleko ordezkarien artean beste modu bateko hurbilketa: profil berbera eta bakarra dago, “guztiok gara udalerriko pertsonak”.
- Partaideek oso nota eman diete tailerrei. 6 tailerretako iraunkortasun-tasa % 95 ingurukoa da.
- GizarteLab agente berriak dituzten beste proiektu batzuen sorburu bihurtu da.
- GizarteLab erraz eraman daiteke beste udal edo trantsizio batzuetara (ekologikoa, digitala..).
- GizarteLab proiektuaren garapenak Gipuzkoako Foru Aldundiaren, UPV/EHUn, MUren eta Adinberriren aitorpena ekarri du.
- GizarteLab proiektuaren aurkezpena Gipuzkoako Foru Aldundiak 2021eko urriaren 29an antolatutako «Gizarteratzea artatzeko Jardunbide Egokien III. jardunaldiak: ikerketa, kudeaketa eta esku-hartze ekimenak».

KASUAREN KATEGORIZAZIOA

Berrikuntza-eremuak:

- Prozesua: Berrikuntzaren Kudeaketa.

Aukera arloak:

- 1 - Gizarte eraldaketa eta konpromisoa
- 2 - Osasun-trantsizioa/osasuna
- 3 - Trantsizio energetiko/klimatikoa

Alberto Vesga (partaidea GizarteLab programan).

“Gizarte Lab oso esperientzia pertsonal interesgarria izan da, eta, horri esker, Legazpiko udalerriko beste pertsona batzuekin batera zahartze-prozesuei buruz hausnartzeko aukera izan dut”

Alberto Bezunartea (partaidea GizarteLab programan).

“Tailerra oso interesgarria eta eraikitzailea izan da, eta uste dut orain arte hausnartu ez ditudan gauzak pentsarazi dizkidala; gainera, nire ustez, Gipuzkoako beste udalerrietan ezarri beharko litzatekeen dinamika da”

Innovation Index Score: ★★★★★

Lerrokatze estrategikoa: ★★★★★

Kreatibitatea: ★★☆☆★

Kolaborazioa eta hibridazioa: ★★☆☆★

Sistematizazioa: ★★★★★

Eraginkortasuna emaitzetan: ★★☆☆★

Efizientzia emaitzetan: ★★★★★

Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna: ★★☆☆★

★

Eragina: ★★☆☆★

Aintzatespena: ★★☆☆★